



262/2020 Ebazpena, 2020ko uztailaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 7. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, 2019an zehar jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 7. lehentasuneko zerrendak ordenatzen dira. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 7. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2020ko uztailaren 2an indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakioko Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 1ean


Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Iz.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



**Behin-behineko zerrendaren aurkako
ERREKLAMAZIOA****RECLAMACIÓN**
Contra la relación provisional**2014ko ALDI BATERAKO
KONTRATAZIOKO ZERRENDAK****LISTAS DE CONTRATACIÓN
TEMPORAL 2014**

7. Lehentasun: 2019ko urtarrilaren 01etik-abenduaren 31arte izena emandakoak

Prioridad 7: Inscritos entre el 01 de enero y el 31 de diciembre de 2019

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS:	NAN / D.N.I.:
HELBIDEA / DOMICILIO:	TELEFONOA / TELÉFONO:
KATEGORIA / CATEGORIA:	

ADIERAZTEN DU**EXPONE QUE:**

Behin-behineko zerrendan horrela agertzen da:

En la relación provisional aparece como:

(Gurutze batekin adierazi)

(Señalar con una cruz)

<input type="checkbox"/>	Onartua
<input type="checkbox"/>	Ez onartua
<input type="checkbox"/>	Ez da agertzen zerrendan

<input type="checkbox"/>	Admitido/a
<input type="checkbox"/>	Excluido/a
<input type="checkbox"/>	No figura en la lista

Erreklamazio arazoak:**Motivos de la reclamación:**

<input type="checkbox"/>	EPE puntuazioa	<input type="checkbox"/>	Ez du egiaztatzen IT txartelarik
<input type="checkbox"/>	Lan esperientzia	<input type="checkbox"/>	Jabetzako plaza
<input type="checkbox"/>	Hizkuntza eskakizuna	<input type="checkbox"/>	Ez du naziotasuna betetzen
<input type="checkbox"/>	Aukeratutako barrutiak (interinitateak)	<input type="checkbox"/>	Ez du adinaren baldintza betetzen
<input type="checkbox"/>	Aukeratutako zentroak (ordezkapenak)	<input type="checkbox"/>	Ez du gida-baimenik egiaztatzen
<input type="checkbox"/>	Ez du egiaztatzen eskatutako titulazioa	<input type="checkbox"/>	Beste batzuk

<input type="checkbox"/>	Puntuación OPE	<input type="checkbox"/>	No acredita IT txartelas
<input type="checkbox"/>	Puntuación experiencia	<input type="checkbox"/>	Plaza en propiedad
<input type="checkbox"/>	Perfil euskera	<input type="checkbox"/>	No cumple nacionalidad exigida
<input type="checkbox"/>	Áreas elegidas (interinidades)	<input type="checkbox"/>	No cumple edad exigida
<input type="checkbox"/>	Centros elegidos (sustituciones)	<input type="checkbox"/>	No acredita permiso de conducir
<input type="checkbox"/>	No acredita titulación exigida	<input type="checkbox"/>	Otros

Erreklamazioaren arrazoa laburbilduta adierazi eta beharrezko dokumentazioa erantsi:

Describe sucintamente el motivo de la reclamación y adjunte la documentación necesaria:

--

_____ n 2020ko _____ aren _____ n En _____, a _____ de _____ de 2020

SinaduraErregistro ZigiluaSello de RegistroFirma